

SINDIKATUEK UTZI EGIN DUTE OSASUN ARLOKO MAHAI SEKTORIALAREN BILERA

SATSE, ELA, LAB, SME, CCOO eta UGT sindikatuok Osakidetzaren jarrera inposatzailea eta negoziatzeko borondate falta salatu dituzte

Osasun Arloko Mahai Sektorialaren bileren edukia ikusita, esan dezakegu Osakidetzak dinamika zaharrekin jarraitzen duela; urte honetan zehar hilabete luzez foro hori uztera eraman gaituzten formekin eta edukiekin. Gaur, arrazoi berberengatik altxatu gara berriro Mahaitik.

Osakidetzak uko egin dio negoziatzeari, bai eta sindikatuok behin eta berriro proposatu dizkioten eta langileen lan-baldintzetan eragin zuzena duten gaiak buruz hitz egiteari ere. Aitzitik, proposatutako gaietako batzuk era formalean barne hartzen baditu ere, bileran uko egin dio gai horiei buruzko negoziazioa irekitzeari, eta aitzakiak jarri ditu, hala nola dagoeneko itxita dauden gaiak direla edo ez duela gai horiei buruz erabakitze gaitasunik. Hori gertatzen da %4ko soldata-parekatzearekin (CVTTHko langileek 6 greba-egun baino gehiago egin dituzte dagoeneko arrazoi horregatik) edo PAC izenekoan (Zumarraga, Deustu edo San Martini) ordutegiak berriro irekitzearekin eta berreskuratzearekin.

Hori gutxi balitz, eta landu beharreko gaiak Osakidetzak inposatzen dituen arren, ez dago horiei buruzko negoziatorik. Gaiak mahaira ekartzera mugatzen da, bere legezko betebeharra era formalean betetzeko helburu bakarrarekin, baina praktikan ez da inolako negoziatorik egiten, eta, beraz, azkenean ia hasierako terminoetan behin betikotzat jotzen den proposamen itxia planteatzen da. Horrekin, sindikatuok negoziazio bat dagoela ere simulatu nahi da, baina ez da hala. Osakidetzak Mahaia erabiltzen du propaganda tresna gisa.

Hala gertatu zen hilaren 29ko bileran, sindikatu bakar baten abalik ere izan ez zuen egonkortzeko LEParin oinarriekin. Eta hala gertatzen ari da garapen profesionalaren eredu berriarekin. Eredu horrek oso murrizketa garrantzitsua dakar langileentzat, eta Osakidetzak uko egiten dio negoziatzeari eta aldatzeari, sindikatuok behin eta berriro eskatu arren.

Horri guztiari etengabeko opakotasuna gehitzen zaio. Gogorarazi dezagun dagoeneko salatu genuela egonkortzeko LEParin eskaini beharreko plazarik zehazterakoan erabateko gardentasun-falta dagoela. Bada, gaur egun, Eskaintza EHAOn argitaratu ondoren, oraindik ez dakigu zein plaza eskainiko diren prozesu horretan. Nahiz eta, 20/21 Legearen testuarekin bat etorriz, eskaini beharreko plazen azken kopurua zehazteko, plaza bakoitzaren banakako azterketa egin behar den. Salatu dugunez, opakotasunaz gain, plazen guztizko kopurua (3.700) ez da nahikoa Osakidetzak aldi baterako 24.000 langile baino gehiago dituela kontuan hartzen badugu.

SATSE, ELA, LAB, SME, CCOO eta UGT sindikatuok benetako negoziazioa eskatzen diogu Osakidetzari, plantillaren lan-baldintzak hobetzeko, eta negoziatorik eta edukirik ez dagoen bitartean, ez garela berriro Mahai Sektorialera joango ohararazi nahi diogu.

Euskal Herrian, 2022ko urriaren 10ean.